

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iñaxi Gereñu Odria

*Legazpi,
Gipuzkoa
(1928-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Brinkolako Guriditegiko kaxetan jaio zen 1928an. Aita trenbideetako langilea zen, eta hargatik bizi ziren kaxetan; ama ere trenei argi egiten aritu ohi zen. 7 urtera arte, Brinkolako eskolan ibili zen; eta geroago, Zumarragan. 14 urterekin hasi zen "Ubaldo Segura"ren orrazi-lantegian lanean, orraziak leuntzen eta garbitzen. Inaxik lan egiten zuen orrazi-lantegiko sekzioak kiebra jo zuen, eta paper-lantegira joan zen lanera. Ezkondu ostean Zegaman jarri zen aurrena bizitzen; gerora, Legazpira joan ziren.

Zintak

LGA-051

- **Proiektua:** Legazpiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-07-22
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. 'Cara al Sol'en beste bertsio bat

- **Erref:** LGA-051/004
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:05:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Gerra ostean, eskolan ere euskara debekatu egin zuten, eta Cara al Sol abestera behartzen zituzten. Ume batzuek, baina, kantaren hitzak aldatu zituzten.</p>

Transkripzioa

-Esan dezu "Cara al sol" kantatu behar izaten zenuela.

-Bai, eskolaa sartuta lenengo "Cara al sol" kantatzen gendun. Ta gero

mutiko batzuk listok'e bazeren eta etaa zuen alrrebes: "Cara al sol con la camisa rota me puse al fuego antes de ayer. Me hallará la muerte si me llega sentado en un café" ta. Bazeren mutiko listok! Bai. Eta hola, hola zien gure kontuk.

-Gerra garaian euskeraz...

-Ez ziu en uzten, prohibittu in zuen. Bai. Debekau in ziu en. Ta erderaz, dana erderaz in behar izaten gendun. Bueno, guk geure artean euskeraz eitten gendun eta etxen euskeraz, baiño bestela eskolan eta hola debekauta eon zan. Zenbait denporan? Ba ez dizut esango, ez naiz akordatzen zenbait denpora. Baiño hori bai.

-Beldurrez ibiliko zineten.

-Honbre.

2. Gerra hasierako larritasunak

- **Erref:** LGA-051/005
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:05:47. **Bukatu:** 00:07:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Gerra hasi zenean, lñaxik 8 urte zeuzkan. Gogoan du gerra hasi zenekoa: aita beldur zen eraman egingo ote zuten. Orduko oroitzapenak kontatzen ditu: aita etxera itzuli zela, koltxoiak jarri zituztela leihoetan babesteko...</p>

3. Gerra Legazpira inguratzen

- **Erref:** LGA-051/007
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Gerra Legazpira inguratzen ari zen heinean, jendea beldurtzen hasi zen. Orduko oroitzapenak kontatzen ditu. Soldaduek etxeren batetik urrezko erloju bat eraman omen zuten.</p>

4. Goserik ez, baina beharra bai

- **Erref:** LGA-051/009
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:11:33. **Bukatu:** 00:12:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra ostean, ez zuten goserik pasa; ama baserrikoa zen, eta horri esker laguntza izan zuten. Goserik ez, baina beharra bai: batzuek mandarina jaten

zutenean, beraiek inbidiaz egoten ziren. Behin lñaxik eta anaiak taloak egin zituzten beren kabuz.</p>

Transkripzioa

-Goserik pasatu zenduen?

-Goseik prezisamente, nezesidadea. Goseik ez. Taloa ez bazan ogie. Gero gure ama baserrikoa zan, ta beti launtasun pixkan bat. Baiño gosea gosea... Geroxeo boniaton garaien eta ordun pixkat, baiño gosea esateko... Honbre, akordatzen naiz gu ya eskolan ba ez dakit ba zortzi, zazpi-zortzi urte eta. Lagun batzuk diru gehiagokok izaten die leku guztitan eta batek mandarinea jaten zihoan, eta gure enbidie, guk mandarinaik ez, guk ez gendun jaten mandarinaik eta hola ta; haren usaiekin amorratzen hura jateko. Hori bai, baiño gosea-gosea... Eta behin gure anaie gaztena Oñatin bizi da ta, atsalden ama jun zan nunbaittea ta etorri zanen talo eitten harrapau gendutzen amak. Nunbait meriendatzeko gogoia euko gendun eta beste ezer ez zan eongo. Sekula ez gendun eingo baiño ordun talo eitten harrapau gendutzen amak.

-Eta zer esan zizuen?

-Ze esango ziuen,"bejondaizuela! Aindu banizue ez zenduen eingo ta. Hola.

5. Elizakoak eta aitonari buruzko oroitzapena

- **Erref:** LGA-051/010
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:12:57. **Bukatu:** 00:16:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>6 bat urte zituela, etxean aitona gaixo zegoen; umeak etxetik beheko auzora bidali zituzten jolastera; bidean, Elizakoak zetozenez, lurrean lokatzetan belarrik jarri ziren. Orduan konturatu zen aitonarentzat zela hura. Elizakoei buruz hitz egiten du.</p>

6. Dotrina ondo ikasiak

- **Erref:** LGA-051/012
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:17:54. **Bukatu:** 00:20:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Dotrina eskola baino hobeto ikasten zuten. Komunikazio handia egiteko, Legazpira joaten ziren dotrina ikastera. Dotrinako liburua gogoan du; euskaraz ikasten zuten.</p>

7. Errespetua bai, diziplina gogorra ez

- **Erref:** LGA-051/015
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:22:47. **Bukatu:** 00:24:32

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Familian errespetua bazuten, baina ez diziplina gogorra. Behin dantzan gustura zebiltzala, etxera pixka bat beranduago joan zen; eta atea itxita aurkitu zuen. Mutilek askatasun gehiago zeukaten neskek baino.</p>

8. Orrazi-lantegiko lan-prozesua

- **Erref:** LGA-051/020
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:29:49. **Bukatu:** 00:32:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Eskola bukatu zuenean, Iñaxi orrazi-lantegian hasi zen lanean, orraziak garbitzen. Lan-prozesua nolakoa izaten zen azaltzen du.</p>

9. Orrazi-lantegiko giroa

- **Erref:** LGA-051/021
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:32:19. **Bukatu:** 00:33:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak

Laburpena:

<p>Orrazi-lantegian lana gutxitu zenean, paper-fabrikara joan zen Iñaxi lanera. Orrazi-lantegian, emakumeek egiten zuten lan gehienbat. Laneko giroaz hitz egiten du.</p>

Transkripzioa

-Nolatan hasi ziñan peineterian lanean.

-Ba ahizpa zebilen aurretik, eta harek. Eta hura gero're han geldittu zan. Gurek ba ez dakit kiebra edo ze in zon, zeozter pasau zan, eta lanik, itxi ein zan peineterie, orrazik eitten zan lekue. Eitten zuen pastak eta beste ze bazuk.

-Eta zuek zeundeten orrazia bera egiten zan?

-Orrazie, bai. Zeren makinak eta puak etaatzeko ta dana. Orrazie. Eta lanik barik /parik/ geldittu giñen eta nere anaie papeleran zebillen lanen, ta harek eskau lana. Esan zian: "Nik esango zionat Felixi aber lanik daon". Eta hurrengo egunen lanea juteko. Oin bezelako mixerik ez zeon ordun lanakin eta. Horti irten eta jun nitzen papeleraa.

-Inaxi, emakumeak ziñeten gehienak peineterian lanean?

-Bai. Gizonezkoek'e bai baiño gehiena emakumak giñen, gure saillen [lokatzatan] danok emakumak.

-Eta hain gaztek hamalau urteko. Zaharragok ere izango zien ba?

-Bai, jesus!, bai, ezkonduk'e bai bazeren.

-Alde ederra egongo zan zuetatik haiengana.
-Honbre! Baiño gu dominauta eukitzen genduzten, gu gaztegek eta. "Hori ez den hola eitten" eta "gaizki ein den" eta.
-Zeinek erakusten zizuen, zaharragoek edo nagusiek?
-Nagusik ez, enkargauek.

10. Orrazi-lantegiko zereginak

- **Erref:** LGA-051/022
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:33:49. **Bukatu:** 00:35:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak

Laburpena:

<p>Orrazi-lantegian, zer zeregin izan zituen aipatzen du. Lokatzarekin egiten zuen lan. Ilaran egiten zuten lan. Orrazi motak.</p>

11. Soldata lapurtu ziotenekoa

- **Erref:** LGA-051/023
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:35:37. **Bukatu:** 00:37:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Behin bere soldata lapurtu ziotenekoa kontatzen du. Etxean nahigabea hartu zuten arren, ulerkorak izan ziren.</p>

12. Gizonek emakumeek baino gehiago kobratzen zuten

- **Erref:** LGA-051/026
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:39:26. **Bukatu:** 00:41:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Somara egiten zuten lan, eta orduak nola kontatzen zituzten azaltzen du. Gizonen eta emakumeen soldaten artean aldea zegoen: emakumeek gutxiago kobratzen zuten.</p>

13. Paper-fabrikako zereginak

- **Erref:** LGA-051/028
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:42:28. **Bukatu:** 00:44:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Paper-fabrian, paperak kontatzen aritzen zen. Papera nolakoa izaten zen azaltzen du. Bobinak lotzen ere ibili izan zen lñaxi, paper-fabrian; lan hartan zer egiten zuten aipatzen du.</p>

14. Elkartasuna nagusi, etxean eta kalean

- **Erref:** LGA-051/030
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:45:05. **Bukatu:** 00:46:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Lanean irabazitako dirua etxean ematen zuten. Lagunartean, diru-kontutan elkarri laguntzen zioten.</p>

Transkripzioa

- Irabazitako dirua etxera entregatzen bazenduen, asteburutan eta ematen zizuen?

- Bai. Honbre, guk nahi hainbeste igual ez ziuem emango, seguro, baiño ematen ziuem, izaten gendun. Zeatio akordatzen naiz kuadrillan Oñatia, "Santu Bizixak" esaten gendiun, Corpus Euneo prozesioa, "Santu Bizixak", Oñatin hola hitz eitten dan, oiñez Brinkolatik Oñatia prozesioa ikustea. Ta danok izaten gendun dirue batek ez bestek. Ta hari, tiakin eta tiokin bizi zan eta harek: "Yo no tengo pues dinero", kakauesen batzuk erosteko izango zan gurea're baiño. Ta beti hari partitzen; ta eun baten akordatzen naiz esan ziuem: "Hoy ya tengo dinero, e". "Sí?". "Sí". "Qué raro!". "Porque mi tía ha comprado el pan y se le han olvidao los cambios encima del armario y yo le he cogido". Oseake gu baiño okerrago're bazerem besta batzuk.

- Lagun artean erdaldunak ere bazittuzuen?

- Hura, horixe. Bestela euskeldunek giñan danok, e

15. Brinkolatik egiten zituzten irtenaldiak

- **Erref:** LGA-051/031
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:46:22. **Bukatu:** 00:48:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

<p>Brinkolatik inguruko prozesioetara joaten ziren. Garai hartan, Sakamantekasen beldur izaten ziren. Alpagatak jaten zituzten orduan.</p>

16. Tren-geltokiko etxetxoan bizi zireneko abantailak

- **Erref:** LGA-051/033
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:49:32. **Bukatu:** 00:51:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

<p>Tren-geltokiko etxetxon bizi zirenez, trenez ibiltzeko pribilegioak izaten zituzten. Txartel-leihatilako langileei buruz hitz egiten du. Tren-gidari guztiak ezagutzen zituzten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com